

(2013ko azaroa)

## EZ DAGO ESKUBIDERIK!

*Ez dago eskubiderik! Oihukatzen dogu sarritan giza duintasunaren aurka eraso egiten danean. Ez dago eskubiderik emakumezkoari tratatu txarrak emoteko; ez dago eskubiderik umeak eskola joan barik geratzeko; ez dago eskubiderik hainbeste gizon eta emakume lan barik egoteko; ez dago eskubiderik... Sakonean argi dogulako eskubide batzuk nahitaez erresperatu eta defendatu behar doguzana eta hareek ahotan hartzen doguz ukatzen dabezan jarduera pribatu edo publikoek mehatxatzen gaituenean.*

*Baina... nondik datoz ustez jagokuzan balizko eskubide horreek? Noiz eta non jadetsi ditu gizakiak hainbesteko indarraz eskatzen doguzan eskubideok? Gehienen ustea da gizakiok ezin dogula izadiko gainerako elementuei -animalia edo landarak, tresnak, beste gauza batzuk...- emoten jaken tratatu bardina izan.*

### Irakurketa eta alkarrizketarako gida

1. Gizakiaren duintasunaren defentsa edo ukapena erakusten dauan gertaera, gure artekoa edo munduko beste leku batekoa, aitatu.



2. Zelan azaldu gizakia dauala lehentasuna kristinau fedeagaz bat ez datozanentzat?



3. Gizakia izaki indibidual eta soziala bada, ze ondorio zehatz aterako zeunke indarrean dagoan krisi ekonomikoa dala-eta?






# OINARRIDUN DUINTASUNA

Gizakiaren duintasuna ezinbesteko abiapundua da gizon eta emakume guztien eskubideak eta betebeharrak oinarritzeko. Kristinauontzat, gainera, giza duintasunaren oinarri nagusia Jaungoikoaren irudiko sortuak izatean eta Jaungoikoak bera, Jesusengan, gizon egitean datza. Gainera, Jesusek bat egin eban bere sasoko baztertuakaz, bereiztuakaz. "Nire anai honeetariko txikiren bati egin zeuntsena, neuri egin zeunsten" (Mt 25, 40).

Gure gizarte anitzean, kristinau fedea ez da giza duintasuna autortzen dauan bakarra. Gizakiak, desbardinak izanda bateratu egiten diran bideetatik antzeman dau zoriona eta zuzentasuna jadedetako erarik seguruen eta eraginkorrena gizaki baktxari berez jagokon balioa baieztatzea dana. Hauxe da NBEak 1948an Giza Eskubideen Adierazpen Unibersalagaz irudikatu zan bizikidetzazintzo eta baketsuaren oinarri lez babestu beharreko balioa. Eskubide honeen sustrai eta oinarria giza izatasunean bertan. Ez dira emondako eskubideak, autortutakoak baino. Euren jatorria ez dago giza borondatean, edo legeetan, edo Estaduan, gizaki baktxa persona izatean bano; hau da, gizakiaren izatasunari jagokoz. Horregaitik, eskubide unibersalak, bortxaezinak eta besterenezinak dira.



Behartasun eta bazterketa larri eta gordina jasaten dauan jente-andana egoteak gizakiaren duintasuna ukatu egiten dau eta, ondorioz, gizakia beste helburu eta interes batzuen mendeko tresna bihurtzen.

EDSak, gizaki osoaren eta gizaki guztien duintasuna baieztatzean, horren autortza eta defentsa lehentasuna dauan egitasmo zabala dala adierazoten dau.

Hori dala-eta, jarduera politiko eta sozialaren helburua gizabanakoen eta berran arteko bazterketa eta desbardintasunaren aurka burrutatzea izango da, giza izatasunaren arabera jagoken duintasuna garatu daiten.



## ELEIZAREN DOKTRINA SOZIALAREN IDAZKIAK

### Pacem in Terris (PT) Bakea lurrean

*Entziklika egian, zuzentasunean, maitasunean eta askatasunean oinarritu behar dauan herri guztien arteko bakeari buru. Joan XXIII.a.*

1963

**9.** Gizakiak **berezkoak** ditu eskubideak eta betebeharrak; bere izatasunetik jatorkoz berehala eta aldi berean. Eskubide eta betebeharrak honeek, beraz, unibersalak eta bortxaezinak dira eta ezin jake ezelan be uko egin.

### Gaudium et Spes (GS) Poza eta Itxaropena Vatikanoko II. Kontzilioa

*Eleiza gaurko munduak konstituzino pastoral. Paulo VI.a.*

1965

**25.** Gizakiaren izaera sozialak dakar pertsonaren garapena eta gizartearen beraren hazkundera bata bestearen mende izatea. Izan ere, **erakunde sozial guztien oinarri, subjektu eta jomuga giza pertsona da eta halaxe izan behar du**, bere izaeraz bizarte-bizitzaren premia duelako.

### Sollicitudo Rei Socialis (SRS) Arlo sozialaz arduratu

*Entziklika, Populorum Progresio idazkiaren 20. urteurrenean.  
Joan Paulo II.a.*

1987

**47.** Gizakiaren duintasuna, Kreatzaileak **gure esku itzi daualarik bere defentsa eta sustapena**, eta historiako abagune bakotxean gizon eta emakumeek horretan zorrotz eta arduraz jokatu behar dabelarik.

### Christifideles laici (ChL) Kristinau fededun laikoak

*Sinodo osteko burubide apostolikoa laikoek eleizan eta munduan daben bokazino eta misinoari buruz. Joan Paulo II.a.*

1988

**37.** Lurreko izaki guztien artean, bakarrik gizakia da "persona", subjektu kontziente eta askea eta, hain zuzen be horregaitik, lurrean dagoan guztiaren mui eta gailurra. **Duintasun pertsonala da gizakiak dauan ondasunik bikainena** (...) Jaungoikoak bere antz eta irudiko sortua... pozez beteten dauan Jaungoikoagazko betiko batasuna jomugatzat dauana... Horregaitik, gizakiaren duintasun pertsonalaren bortxaketa orok mendekua oihukatzen dau Jaungoikoaren aurrean, eta gizakiaren Sortzailearen aurkako irain lez agertzen da.

Bere duintasun pertsonala dala-eta, gizakia berez, gizaki dalako, balioa da eta holan autortu beharra dago. Eta alderantziz. Sekula ezin da hartu objektu erabilgarri, tresna edo gauza lez.



# OTOITZ EGITEKO

Hasiera 1, 26-28.

“Jaungoikoak esan eban: Egin daigun gizakia; izan bedi gure irudiko, gure antzeko; menderatu daizala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, abereak, basapiztiak eta lurrean narraska dabilzan piztia guztiak. Jaungoikoak, beraz, bere antzeko egin eban gizakia, Jainkoaren beraren irudira egin eban; ar eta eme egin ebazan. Eta be-deinkatu egin ebazan”.



## GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO OTOITZA

Guztion Aita, eskerrak emoten deusuguz gizon, emakume eta ume guztiok aske eta duintasun eta eskubideetan bardin jaioten garalako.

Lagundu eiguzu zure presentzian anai-arreba lez bizitzen.

Jesus Jauna,  
gizon lez etorri zien gure artera eta ez zinduguzan onartu.  
Gaur egun be, herrialde askotan, gure anai eta arreba askori giza eskubideak ukatu egiten jakez. Eurengan kurutziltzatua zara orain be. Parkatu eta salbatu gaizuz.

Espiritu Santua,  
gure bihotzen argia,  
zatoz eta erakutsi eiguzu Jaungoikoaren seme-alaba izatetik jagokun jakituria. Emoiguzu danontzako lekua dauan mundua sortzeko ahalmena. Jauna, izaki aske jaioten garanez, itzi aske irauten, Zugana itzuli arte.

## ABESTIA

Manolo Copéren  
letra eta musika

Hemen aurkitu daiteke  
bideoa:

[www.bizkeliza.org/pobrera](http://www.bizkeliza.org/pobrera)

"LA PERSONA ES LO PRIMERO"

1.- Si la persona no es lo primero, alguien ocupará su lugar: los beneficios, la economía, si no tal vez, será el capital.

Si la persona no es lo primero el mundo marcha al revés. Si la persona no es lo primero, algo tendremos que hacer.

2.- Si hacemos propio el sufrimiento del hermano de aquí y de allá nos convertimos en mensajeros de abrazos tiernos, fraternidad.

Si la persona no es lo primero el mundo marcha al revés. Quien llora y sufre irá primero, ¡dale la vuelta otra vez!

3.- Si la persona no es lo primero, quien tenga más, pisoteará nuestras razones, nuestros derechos no podremos siquiera opinar.

Si la persona no es lo primero el mundo marcha al revés. Si va delante el usurero, algo habrá que remover.

4.- Si construimos un mundo nuevo, poniendo al centro la humanidad un sueño bueno irá naciendo creando todos comunidad.

Si la persona no es lo primero el mundo marcha al revés. Si la persona no es lo primero, algo tendremos que hacer.